

# LAJA, INTERWER

Mugikorra gaur egun ezinbesteko gailua da denontzat, horregatik gure startinnovako taldeak, LAJAK, honen erabileran jazotzen diren arazoak konpontzeko asmoz, "Interwer" izeneko gailua asmatu dugu.

Taldean lehenengo batxilergoko lau ekintzaile gara: Aitor Jauregi, Aitor Txintxurreta, Joseba Madina eta Leire Agirre.

Interwer bi ezaugarri nagusiko gailua da. Alde batetik, eguzki-plaken bidez bateria emango dio zure mugikorrari, nahi duzun tokian eta egunez nahi duzun unean; bestetik, interneta emango dizu nonahi. Kable batez gailua eta mugikorra konektatuz, bat batean zure mugikorra kargatzen egongo da eta interneten ibiltzeko aukera izango duzu.

Produktu hau egitea otu zaigu gazteak garen aldetik mugikorra uneoro erabiltzen dugulako. Gure buruak une askotan ikusi ditugu bateria gabe zein internet gabe. Egia da kargagailuak ditugula bateria kargatzeko, eta baita Wifi-a interneten nabigatzeko ere, baina hauek banandutako bi baliabide izateaz gain, ez ditugu nonahi eta noiznahi.

Merkatuan ez genuen bi arazo horiek batera konponduko lizkigukeen irtenbiderik ikusi. Hori horrela izanik, merkatuko hutsune edo falta hori guk geuk betetzeko asmoz gure proiektuari ekin diogu. Orain badago bateria eta interneta biak batera emango dizkizun gailua.

Gainera, merkatuko hutsune hori betetzeaz gain, taldekide bakoitzaren abileziak zein zaletasunak ere biltzen ditu gure gailuak.

Gailuaren izena internet eta power (energia ingelesez) hitzen arteko nahasketa da. Hau da gailuaren eta enpresaren logoa:



Uhinek interneta errepresentatzen dute; izpiek, berriz, energia edo bateria. Gure gailuaren bi ezaugarriak hain zuzen.

Lau taldekideok oso abilezia ezberdinak ditugun arren, bata betearen osagarri izan gara proiektua aurrera eramateko, hori gainerako ataletan ikusi daiteke xehetasunez.

